

Oroimenaren lekuak eta lekukoak. Gerra zibilaren erre-presentazio artistikoak versus kontaera historiko politikoa". Horixe da udara honetan Lourdes Otaegiri (Beizama, 1959) loa kendu dion ikastaroa.

Zer dira, baina, oroimen lekuak?

Historia kulturalean nazio bateko pentsamendu kolektiboaren edo identitate kontzientzia baten barruan noduluak modukoak dira oroimenaren lekuak, noduluaren arteko konexioekin eraikitzen da eta kolektibo horren iraganaren inguruko pentsamendua. Nazio baten historia kontatzen denean, beraz, bere gertakariez aparte, historia kulturalean iraganaren gaineko begirada nola mamitzen den aztertzeak garrantzi handia du. Hala nabarmendu zuen Pierre Nora historialari frantsesak, eta oroimen lekuak funtsezkoak dira egiteko horretan. Data bat, leku bat edo bandera baten moduko objektuak izan daitezke oroimen lekuak.

Ipini, mesedez, oroimen lekuen hainbat adibide.

Estatu frantsesean, adibidez, bat I. Mundu Gerraren amaiera oroitzen duen Armistizioaren Eguna izan daiteke. Euren nazioaren arrakasta ordezkatzen du egun horrek. "Marseillesa" abestiak ere identifikatzen ditu; Frantziako Iraultza gogorazti eta burgesia aristokraziaren boterearen jabe egin zeneko unea ospatzen dute.

Gure komunitateak ba al ditu?

Noski, historialariek identifikatuak dituzte gainera; "Diccionario de símbolos del nacionalismo vasco" liburuan daude. Bertan ikus daitezke oroimen leku horietako asko 1936ko gerra zibilari lotutakoak direla, edo abertzaletasunaren ikurrak testuinguru horretan solidifikatutakoak direla. Gernikako bombardaketaren efemeridea edo "Gernikako arbola" kanta bera izan daitezke oroimen leku ho-

«Amaiurko gaztelua edo Orreagako bataila bera ere badira oroimen lekuak. Gertakariak leku bat egiten digute historian, eta, gainera, protagonista bihurtzen gaituzte»

«Protagonista gutxi dira emakumeak. Subjektu historiko gisa emakumea aintzat hartu ez dugula ere esango nuke; protagonista ikusezina da, multzoan datorrena»



Argazkiak: Jon URBE | ARGAZKI PRESS

«Oroimen lekuak konforta, kontsolamendua edo identitate trazu batzuk ematen dizkiguten elementuak dira»

rietako bi. Gernikako eliza ataria eta arbola ere izan daitezke beste bat. Lehen euskal gobernuan han eratu zen eta bombardaketarekin oroimen lekua berrindartu egin zen. Geroztik berriak ere sortu dira. Arrano beltzaren enblema, Amaiurko gaztelua edo Orreagako bataila ere badira oroimen lekuak. Gertakari horiek guztiek leku bat egiten digute historian, eta, gainera, protagonista bihurtzen gaituzte.

Nola aukeratzen dira oroimen lekuak?

Iraganeko lekuak hautatzerako orduan konforta, kontsolamendua edo identitate trazu batzuk ematen dizkiguten elementuak aukeratzen ditugu. Memoria deitzen den esparru honetan, beti daude elementu subjektiboak. Gaur egundik egiten dugun begiradak tindatzen ditu. Noski, ez dute historia objektiboki ordezkatu, baina ez dira horregatik gutxietsi behar, kolektiboaren identitatearen eta iragan kolektiboaren osagai nagusiak dira-eta.

Oroimen lekuak ez dira, baina, iragana klasifikatzeko modua bakarrik, ezta?

Ez, ezta gutxiago ere. Kolektibo baten oroimenean zein elementu dauden jakitea oso garrantzitsua da, bereziki, emozioak batu eta hauek aktibatu nahi izanez gero. Oroimen lekuei erreferentzia eginez eta bertan eraginez, komunitatea bera jar dezakezu martxan. Gizartearen lidergoa duten horiek, gizartea interesatzen zaien norabidean mugitzeko, oroimen lekuez baliatzen dira.

Ez zara historialaria. Zergatik oroimen lekuekiko interesa?

Ikastaroa antolatu genuenok antropologia edo filologiatik gatoz, baina memoria historikoaren inguruko interesa dugu. Zergatik? Batetik, diskurtso bat sortu eta arte bilakatzen den produktua ere badelako, literaturan eta musikan mamitzen baita. Bestetik, taldearen bizitza espresatzen duen neurrian, kolektibo horrek bere errealitatea eta traumak nola gestionatu dituen aztertzeke balio dio antropologoari. Finean,

taldeak hartu duen mina nola kudeatu duen aztertzen dugu.

Arteak zeresana du, beraz, oroimen lekuetan?

Fikzioak sortuz zuzenean esan ezin duguna esaten dugu. Arteak lagundu egiten du; irudiak, filmek, hitzek esan ezin dutena esaten dute askotan.

Mikel Laboa behin baino gehiagotan aipatu zenuten ikastaroan.

Bai, Mikel Laboaren lekeitioak traumaren espresio artistikoak dira-eta. "Gernika" izenekoak, adibidez, bombardaketaren mina islatzen du. Joseba Elosegiren bontzo erreketak hark bultzatu omen zuen Laboa; Gernikak izandako gudari batek Frankoren aurrean bere burua alkoheletan busti eta sua eman izanak erabat hunkitu zuen. Laboaren ustez, Gernikako suaren garrak euskal kolektiboaren kontzientzia erretzen jarraitzen zuen oraindik; zentsura zelata eta hitzekin esaterik ez zena oihuekin adierazten zuen Laboak. Mezua kodifikatu zuen, jendeak, alabaina, oso ondo ulertu zuen. Txoriak, gerra hegazkinak, oihuak... Isiltasunaren ostean, gainera, "Haika mutil jeiki hadi!" abesten zuen. Berez, errepertorio komiko bateko elkarrizketa omen zen kantu herrikoi hori, baina "Gernika" lekeitioan esanahia erabat aldatuta dator, testuingurua guztiz aldatuta. "Gernika" ez da, gainera, kantu bakarra; lekeitio guztiek dute inplizituki gizartean bestela esaterik ez dena adierazteko hazimin hori. Modu abangoardistan. Oso aztergarria da Laboa sortzailea moduan.

Zehazki, lekukoaren testigantzetan jarri duzue arreta.

Oroimenaren gaia oso zabala da, eta guk lekukoekin aritu nahi genuen: antropologia testigantzetatik abiatzen da eta lekukoaren oroitzapenek ematen diote abiapuntua oroimen historikoaren literaturari ere. Historiak lortzen ez duen zerbait lortzen dute testigantzek. Datuek errealitate bat azaltzen dute, baina gure emozioak errazago finkatuko dira lekukoekin euren testigantzekin transmititzen duten oroimenare-

kin. Afektuen plus horrekin ahaztezinak bihurtzen dira gertakari batzuk. Batetik, entzuleengan ematen den emozioen itsaste horregatik; eta, bestetik, testiguen hitz egitean hartzen duten atsedanarengatik. Adierazterik ez den mina trauma moduan geratzen da. Ez baduzu kanporatzen ez zara sendatzen; traumak arimaren gaixotasuna iradokitzen du, eta, sendabidean, ezinbestekoa da barruko min hori modu batera edo bestera adieraztea.

Batzuetan, baina, lekukoek ezinezkoa dute adieraztea.

Bai, eta zentsurak egiaren parte hori kontatzea eragozten badu, espresatzeko askatasunik ez badago, traumak iraun egiten du. Trantsizioan isiltasunaren aldeko pakto bat egin zen.

Memoria historiakoaren loraldia bizitzen ari gara. Zergatik izan daiteke?

Neurri handi batean atzerrikigun mugimendua da honakoa. 80ko eta 90eko hamarkadan sortutako mugimendua da, orduan bete baitziren Europako gerra-pizte handien urteurrenak. Alemanian, adibidez, Hitler Gobernura iritsi zeneko 50. urtemugan oroitze saio kritiko sakona egin zen. Auto-analisi sozial handia izan zen hura: saioak idatzi ziren, prentsak erreportajeak egin zituen... Mugimendu hori Europa osora hedatzen joan zen. Euskal Herrira eta Estatu espainolera, baina, berandu iritsi zen. Nik uste 1995ean hasi zela gerra zibila eta gerra ondorengoa literaturan antzematen. Ordura arte zantzuak besterik ez zeuden. Euskal Herrian, trantsizioarekin batera, nazionalismoa bide instituzionaletik hasi zen bere oroimen lekuak identifikatzen. 1995etik aurrera, berriz, filmetan, nobeletan, finean fikzioan, leku horiek guztiak intentsitatez agertzen hasten dira. Begirada kritiko eta autokritikoarekin. Boom horren olatua jasotzen ari gara oraindik.

Euskaldunok beti gerran egon garela dirudi.

Bai, ezta? Historiaren interpretazio hori arreta emangarria da, finean kolektiboak iragana pentsa-

LOURDES OTAEGI IMAZ

IRAGANAREN IKERLARI

Euskal Filologian doktore, iraganean ipini du arreta, diskurtso bat eratu eta arte bilakatzen den produktua ere badelako memoria historikoa.

oihana.llorente@gaur8.info



tzeko erabiltzen baitu bere irudimenean. Literaturak, zinemak... eskubide historikoak babesteko borrokan jarraikortasun bat erakusten du. Hau da, nazionalismoa karlismo zapuztu baten frustraziotik sortzen dela deskribatzen duen ildo, edo borroka armatuaren sustraietan gerra zibilaren eta errepresioaren trauma dagoela dioena... Ikerleek hori nabarmentzen dute. Bernardo Atxagaren "Soinujoiearen semea" obra, esate baterako, kasu argia da horretan.

Irakaslea zara, ikasleek erakusten al dute memoria historiko-arekiko interesa?

Ez behar adina. Ez dira identifikatuta sentitzen, urrutiko kontua iruditzen zaie. Beharbada, egungo gertakariak historiarekin duten loturaz ohartzean interesa agertzen dute, bestela ez. Historiaren gaineko formula errazen bat nahi dute, ez dute historiaren konplexutasunaz jabetzeko ahalginik egiten. Nahiz eta maila kultural edo politikoa memoria historikoa gori-gorian egon, desagertzen ari den belaunaldi horren gai bihurtzen ari da. Formula egin batekin edo auzia sinplifikatuz guztia despatxatzea denon kalterako da. Historia ondo ezagutzeak gu geu ezagutzea dakar. Bestela akats berdinetan

erortzeko aukera dago. Iragana konplexua da, eta, haren oroimena, konfliktiboa.

Denek ez dute lekurik oroimen lekuetan, ezta?

Ez. Emakumeak normalean gerraren biktima moduan agertzen dira. Protagonista gutxi dira emakumezkoak. Subjektu historiko moduan emakumea aintzat hartu ez dugula ere esango nuke; protagonista ikusezina da multzoan datorrena.

Egon badaude.

Gero eta interes gehiagorekin ikertzen ari dena Emakume Abertzale Batza dugu, adibidez. Emakumeen boto eskubidea bazetorrela ikusita eratu zituen nazionalismoak; sindikatuek berdin jokatu zuten, emakumeek ere kultura politikoa izan zezaten. Hiriburuetan protagonismoa izan zuten, eta, Bilbon, zantzu deigarriak izan ziren, bertan ikasketak zituzten emakumeak ziren-eta; bertan sortu ziren lehen mitinlariak ere. Sindikatu ezkertiarrek ere interesa bera izan zuen, hor dugu Dolores Ibarruri bera.

Testuinguru horretan emakume konkretu bat aurkitu duzue: Sorne Unzueta. Nor zen?

Bilboko sendi burges bateko alaba zen Sorne, eta, nazionalismora

hurbiltzean, euskalduntzeko erabakia hartu zuen. Gerra aurreko ikastola bateko andereñoa izan zen, eta bizitza osoa eman du euskaraz idazten, argitaratu gabe. Frantzian erbestera behar izan zuen, baina bere irizpide demokratikoez bertan ere konprometizera eraman zuten. Someren zeregina alde libretik alemanek okupatutakora mezuak eramatea zen. Gerra amaitzean Ameriketako Estatu Batuek Someri eta senarrari emandako agiriak frogatzen dute erresistentzia lagundu zutela. Datu kuriozua da Sorne gizon izentzat hartu zutela eta "Monsieur" tratamendua ematen diotela "Temoignage" agirian.

Nola izan duzu haren berri?

Igone Etxeberria ikerleak aurkitu zuen, ikerketa lan handiaren ostean, Sornek ez baitzuen bere burua plazan jarri; erretaguardian ezkutatu zen eta ezkutatu zuten. Prentsan "Utarsus" moduan sinatzen zuen, baina artxibo lana eginez Sorne Unzueta zela jakin zuen Etxeberriak. Ez zekien bizirik ere ote zegoen, baina, ikastola batean Sorne izeneko neskatxa bat ezagutu eta bere izenaren zergatia galdetuta, umearen birramona zela eta bizirik zegoela jakin zuen. Berriki hil da, 105 urterekin. Historia harrigarria da, baina niretzako paradigmatikoa da.

Behin betirako loa

Antton Izagirre

Uste dugu egunero milaka heriotzaren berri ematen diguten albisteek heriotza gauza arrunt eta ohikotzat hartzea ohitu gaituztela. Batzuetan, heriotza krudelek, gizatasun gabeek, haurren heriotzek, babesik gabeenek, gerrak eta justiziarik ezak eragindakoek, halako ezerosotasun, sumindura, haserre bat eragiten digute geure begien aurrean igarotzen direnean, eta hor gordezten ditugu nonbait, burmuinean, arrazoiaren kontrolpean.

Nahiz eta bizitza guztiak balio berbera dutela aitortzen erakutsi diguten, heriotza guztiak berdina ez direla erakusten digu bizitzak. Izan ere, heriotza errealitate objektiboa izatetik haratago, norberaren eremuan kokatzen den errealitate subjektiboa ere bada, eta horrek egiten du heriotza pertsonala. Hala gertatzen zaigu gertuko esparru afektiboan duguna betirako gertuko espazio fisiko horretatik jotzen zaigunean.

Gizakiok badugu betikotzeko joera, nahiz eta poetak gogoratu datorren negu hurbila. Behin betirako loa izutzen gaitu ustekabean kolpatzen gaituenean. Hala bizi izan dugu euskaltzale eta lagun askok orain egun gutxi Inaxio Agirre gure artetik joan izana.

Heriotzari begira baino bizitako gogoan egiten dugu bat poetarekin azken agurrean: «Ez nau iluntzen baratzatikan/ azken loreak biltzeak/ muga guztien arrazoi bila/ arnas gabe ibiltzeak/ Arratsaldeak argi betera/ zentzu denak umiltzea/ amets bezeko loa baitakar/ behin betirako hiltzeak».

Heriotza omen dugu gauza ziur bakarra. Hala ere, heriotzaldira ez gara ohituko. Arrazoiari egingo dizkiogu mila galdera, baina emozioen baratzean bilatuko dugu erantzuna.

Inaxiori gorazarre. •